

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI). 2018KO IRAILA

## Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %3,4 gehitu dira 2018ko irailean

**Udako hiletan —uztailean, abuztuan eta irailean— bidaiarien sarrerak %4,3 ugaritu dira eta gaudiak %5,9**

2018ko irailean, 299.174 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 9.779 gehiago, %3,4ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %8,1 gehitu ziren Gipuzkoan eta %1,5 Bizkaian, baina %2,5 jaitsi ziren Araban.

Bestalde, gaudi erregistratuak, 2018ko irailean, 601.083 izan ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko irailean baino 36.646, %6,5, gehiago. Gipuzkoan %10,6ko igoera gertatu da, Araban %5,3koa eta Bizkaian %3,3koa.

**1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaudiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Iraila**

|                          | Gaudiak        |             | Bidaiarien sarrerak |             | Batez besteko egonaldia |             | Betetze-maila (%) |            |             |            | Gelatioko Errentagarritasuna |                  |
|--------------------------|----------------|-------------|---------------------|-------------|-------------------------|-------------|-------------------|------------|-------------|------------|------------------------------|------------------|
|                          | 2018/09        | m/m-12 (%)  | 2018/09             | m/m-12 (%)  | 2018/09                 | 2017/09     | plazaka           |            | gelaka      |            | ADR (eurotan)                | RevPar (eurotan) |
|                          |                |             |                     |             |                         |             | 2018/09           | p.p.*      | 2018/09     | p.p.*      |                              |                  |
| <b>EUSKAL AE</b>         | <b>601.083</b> | <b>6,5</b>  | <b>299.174</b>      | <b>3,4</b>  | <b>2,01</b>             | <b>1,95</b> | <b>66,6</b>       | <b>2,1</b> | <b>80,2</b> | <b>2,9</b> | <b>101,8</b>                 | <b>81,7</b>      |
| Estatukoak               | 311.087        | 7,5         | 155.310             | 3,5         | 2,00                    | 1,93        | -                 | -          | -           | -          | -                            | -                |
| Atzeritarrak             | 289.996        | 5,4         | 143.864             | 3,2         | 2,02                    | 1,97        | -                 | -          | -           | -          | -                            | -                |
| <b>ARABA/ÁLAVA</b>       | <b>78.702</b>  | <b>5,3</b>  | <b>41.687</b>       | <b>-2,5</b> | <b>1,89</b>             | <b>1,75</b> | <b>60,6</b>       | <b>3,0</b> | <b>74,1</b> | <b>5,5</b> | <b>73,7</b>                  | <b>54,6</b>      |
| Estatukoak               | 52.679         | 4,3         | 26.991              | -3,9        | 1,95                    | 1,80        | -                 | -          | -           | -          | -                            | -                |
| Atzeritarrak             | 26.023         | 7,3         | 14.696              | 0,1         | 1,77                    | 1,65        | -                 | -          | -           | -          | -                            | -                |
| Vitoria-Gasteiz          | 53.885         | 3,5         | 27.355              | -4,5        | 1,97                    | 1,82        | 59,5              | 1,0        | 75,4        | 4,1        | 62,3                         | 47,0             |
| <b>BIZKAIA</b>           | <b>273.665</b> | <b>3,3</b>  | <b>140.415</b>      | <b>1,5</b>  | <b>1,95</b>             | <b>1,91</b> | <b>64,9</b>       | <b>0,4</b> | <b>80,4</b> | <b>1,1</b> | <b>89,5</b>                  | <b>71,9</b>      |
| Estatukoak               | 136.437        | 1,3         | 72.015              | 0,5         | 1,89                    | 1,88        | -                 | -          | -           | -          | -                            | -                |
| Atzeritarrak             | 137.228        | 5,4         | 68.400              | 2,6         | 2,01                    | 1,95        | -                 | -          | -           | -          | -                            | -                |
| Bilbao                   | 165.446        | -3,3        | 83.023              | -6,2        | 1,99                    | 1,93        | 69,3              | -2,6       | 87,0        | -0,2       | 102,6                        | 89,2             |
| <b>GIPUZKOA</b>          | <b>248.716</b> | <b>10,6</b> | <b>117.072</b>      | <b>8,1</b>  | <b>2,12</b>             | <b>2,08</b> | <b>70,8</b>       | <b>3,7</b> | <b>82,2</b> | <b>4,1</b> | <b>125,6</b>                 | <b>103,3</b>     |
| Estatukoak               | 121.971        | 17,1        | 56.304              | 12,0        | 2,17                    | 2,07        | -                 | -          | -           | -          | -                            | -                |
| Atzeritarrak             | 126.745        | 5,1         | 60.768              | 4,8         | 2,09                    | 2,08        | -                 | -          | -           | -          | -                            | -                |
| Donostia / San Sebastián | 144.081        | 9,7         | 66.112              | 9,7         | 2,18                    | 2,18        | 77,5              | 1,6        | 89,7        | 1,5        | 165,8                        | 148,8            |

p.p.\* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea  
Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta


Estatuko bidaiariak %3,5 hazi dira Euskal AEn aurreko urteko irailaren aldean eta atzerriko bisitariak %3,2 gehitu dira. Arabaren kasuan, Estatuko bidaiariak %3,9ko eboluzio negatiboa eduki dute, eta %0,1eko igoera atzeritik datozenen kasuan. Bizkaian Estatuko bidaiariak %0,5 gehitu dira eta atzeritarrak %2,6. Gipuzkoan Estatuko sarrerak %12,0 gehitu dira; atzeritarrenak, %4,8.

Batez besteko egonaldia, irailean, 2,01 egunekoa izan da, 2017ko irailean 1,95 zelarik. Araban lehengo urteko 1,75 egunekotik aurtengo 1,89kora luzatu da; Bizkaian 1,91tik 1,95era luzatu da; Gipuzkoan 2,08tik 2,12ra luzatu da aurtengo irailean 2017koaren aldean.

Plazakako betetze-mailari doakionez, ehuneko 2,1 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2017ko iraileko %64,5etik aurtengo %66,6ra iraganez. Araban ehuneko 3,0 puntuko igoera gertatu da, eta betetze-maila %60,6koa izan da aurtengo irailean. Bizkaian ehuneko 0,4 puntuz gehitu da, eta

%64,9koa izan da betetze-maila. Gipuzkoan hobetu da betetze-maila ehuneko 3,7 puntuz, plazakako %70,8ko betetze-maila 2018ko irailean.

**Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)**  
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Gelakako betetze-maila ehuneko 2,9 puntuz gehitu da Euskal AE osoan, %80,2ra iritsiz. Araban ehuneko 5,5 puntuz gehitu da, %74,1era; Bizkaian 1,1ez, %80,4ra; Gipuzkoan 4,1ez, %82,2ra.

Plazakako hotel-okupaziorik handienak, irailean, gertatu dira Donostian (%77,5), Arabako Errioxan (%76,8) eta Gipuzkoako kostaldean (%76,5).

Asteko eguna aintzat harturik, Euskal AE osoan 2018ko irailean okupaziorik handiena aste-bukaeretan izan da, betetako plazen %72,8rekin; lanegunetan %63,9koa izan da.

**Sektorearen errentagarritasun-adierazleez,** eguneko batez besteko tarifa (ADR) Euskal AEko hoteletan 101,8 eurokoa izan da 2018ko irailean, aurreko urtean baino %6,7 gehiago. Batez besteko tarifa 73,7 eurokoa izan da Araban, non %3,5 jaitsi den; 89,5 eurokoa Bizkaian, %13,6ko igoerarekin; eta 125,6 eurokoa Gipuzkoan, %2,6ko igoerarekin.

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak hotel-establezimenduetako okupazioaren arabera diren, 81,7 eurokoak izan dira Euskal AEn 2018ko irailean, 2017koan baino %10,8 gehiago. Araban 54,6 eurokoak izan dira; Bizkaian 71,9 eurokoak; Gipuzkoan 103,3 eurokoak.

### ***Donostian izan den gelakako betetze-maila Zinemaldian, %92,4***

Zinemaldia izan den bitartean, 20.617 bidaiari-sarrera eduki dituzte Donostiako hotel-establezimenduek 2018ko irailaren 20tik 29ra (10 gau). Denbora-tarte berean 46.943 gualdi izan dira; plazakako betetze-maila %75,9koa izan da; gelakakoa, %92,4koa.

### ***Gelakako betetze-maila Gasteizen hiriko FesTVal-en, %78,4***

4.908 bidaiari-sarrera izan dituzte hotel-establezimenduek Gasteizen 2018ko FesTVal-en, irailaren 4tik 9ra (6 gau). Denbora-tarte berean 11.043 gualdi izan dira. Gelakako betetze-maila, %78,4; plazakakoa, %60,8.

**Uztail, abuztu eta iraileko balantzea: Sarrerak gehitu dira %4,3 eta gualdiak jaitsi %5,9**

Uztail, abuztu eta irailean oro har sarrerak %4,3 gehitu dira Euskal AEn, 2017 hiru hilabete horietan oro har baino 40.198 sarrera gehiago. Gipuzkoan %7,2ko igoera gertatu da sarreretan aurreko urteko aldi beraren aldean eta Bizkaian %4,1ekoa izan da igoera hori, baina Araban %2,4ko jaitsiera gertatu da.

Gaualdiek %5,9ko igoera eduki dute Euskal AEn oro har 2018ko uztail, abuztu eta irailean, 112.648 gualdi gehiago 2017ko hiru hilabeteko aldi beraren aldean. Gipuzkoan %8,4 igo dira, Bizkaian %5,2 eta Araban %0,7.

Plazakako betetze-maila, 2018ko hiru hilabete horietan eta Euskal AE osoan, %72,6koa izan da, ehuneko 1,9 puntuz hobe 2017ko aldi berekoa baino (%70,7).

**Landa-ostatueta bidaiari-sarrerak %7,4 gehitu dira eta gualdiak %11,8 2018ko irailean**

Euskal AEko landa-ostatueta 18.267 bidaiari-sarrera erregistratu dira irailean, %7,4 gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian %9,2ko gehikuntza izan da sarreretan, Gipuzkoan %7,3koa eta Araban %4,1ekoa. Izan dira 5.020 atzerritar-sarrera, zeina den %9,3ko hazkundera aurreko urtekoen aldean, eta sarrera guztien %27,5 da hori. Bestalde, Estatutik etorririko bidaiarien sarrerak %6,6 gehitu dira.

Euskal AEko landa-establezimenduetan irailean 46.435 gualdi erregistratu dira, aurreko urteko hil beraren aldean %11,8ko gehikuntza. Gipuzkoan %14,8 gehitu dira, Bizkaian %8,8 eta Araban %5,7.

Plazakako betetze-mailak, %35,4, ehuneko 3,6 puntuko igoera eduki du 2017ko irailekoaren aldean. Araban ehuneko 0,5 puntuko igoera izan da, betetze-maila %21,3ra iritsiz; Bizkaian betetze-maila %33,1ekoa izan da, ehuneko 3,2 puntu gehiago 2017ko irailaren aldean; Gipuzkoan ehuneko 5,4 puntuz gehitu da, eta betetze-maila %43,3koa izan du irailean.

Azkenik, bidaiariko batez besteko egonaldia luzatu egin da 2017ko irailaren aldean: duela urtebete 2,44 egun ziren; azken hil honetan, 2,54.

**Uztail, abuztu eta iraileko balantzea landa-ostatueta: Sarrerak gehitu dira %2,3 eta gualdiak %8,4**

Uztail, abuztu eta irailean oro har sarrerak %2,3 gehitu dira Euskal AEn, 2017ko hiru hilabete horietan oro har baino 1.425 sarrera gehiago. Araban %5,4ko igoera gertatu da sarreretan aurreko urteko aldi beraren aldean, Bizkaian %3,9koa izan da igoera hori eta Gipuzkoan %0,4koa.

Gaualdiek %8,4ko igoera eduki dute Euskal AEn oro har, 16.269 gualdi gehiago 2017ko uztail, abuztu eta iraileko aldiaren aldean. Araban %12,6 igo dira, Bizkaian %12,3 eta Gipuzkoan %5,4.

Eskuratu den plazakako betetze-maila, 2018ko hiru hilabete horietan eta Euskal AE osoan, %50,9koa izan da, ehuneko 3,7 puntuz hobe 2017ko aldi berekoa baino (%47,2).

## 2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Iraila

|                  | Gaualdiak     |             | Bidaiarien sarrerak |            | Batez besteko egonaldia |             | Plazakako betetze-maila (%) |            |
|------------------|---------------|-------------|---------------------|------------|-------------------------|-------------|-----------------------------|------------|
|                  | 2018/09       | m/m-12 (%)  | 2018/09             | m/m-12 (%) | 2018/09                 | 2017/09     | 2018/09                     | p.p.*      |
| <b>EUSKAL AE</b> | <b>46.435</b> | <b>11,8</b> | <b>18.267</b>       | <b>7,4</b> | <b>2,54</b>             | <b>2,44</b> | <b>35,4</b>                 | <b>3,6</b> |
| Araba/Álava      | 6.055         | 5,7         | 3.027               | 4,1        | 2,00                    | 1,97        | 21,3                        | 0,5        |
| Bizkaia          | 13.271        | 8,8         | 5.780               | 9,2        | 2,30                    | 2,30        | 33,1                        | 3,2        |
| Gipuzkoa         | 27.109        | 14,8        | 9.460               | 7,3        | 2,87                    | 2,68        | 43,3                        | 5,4        |

p.p.\* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

**Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta**

### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62